

Merkealdiak Erne ibiltzeko egunak

Merkealdi garaian murgildurik

Kontsumitzaile askoren arreta piztuko du gaurtik aurrera merkealdiak Hegoaldean. Iparraldean lehentxeago hasi zen.

Kontsumitzaileen elkarteek erne ibiltzeko hainbat aholku eman dituzte.

Gaur hasiko da Hegoaldean neguko merkealdia. Iparraldean, zertxobait aurreratu eta joan den larunbatean hasi zen. Prezioak tentagarriak badira ere, kontuz ibili beharra dago erosketak egiteko orduan. Ohi den bezala, kontuan izan beharreko aholkuen berri eman dute aurten ere kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek.

Izan ere, Gabonak amaitzearekin batera, dirua gastatzen jarraitzeko beste aitzakia bat izaten da merkealdia. Hego Euskal Herrian gaur hasiko da neguko merkealdia, eta martxoaren 31 bitartean iraungo du. Iparraldean, berriz, joan den larunbatean hasi zen.

Merkealdi honek bi hilabete inguru iraungo du, eta %20 eta 30eko beherapena iragartzen duten kartelak ikus daitezke nonahi. Hilabete barru, eta bigarren beherapenean, prezio erdira jaitsiko dituzte saltzeko gelditzen diren produktuak. Jadanik, zenbait supermerkatu handitan jatorrizko prezioaren erdian saltzen ari dira Eguberrietako produktuak eta txokolataak.

Duela bi urte hasi ziren Hegoaldeko denda eta merkataritza gune handiak egun berean beherapenak egiten, Errege biharumunean, hain zuzen ere. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak hala behartu zuten, agindu banarekin. Hala ere, merkealdi sasoi ofiziala gaur hasiko bada ere, gure inguruko dendetako erakusleho ugari eskaintza bereziak edo promozioak iragartzen zituzten kartelez beteta egon dira azken asteotan. Merkealdia eta beherapena iragartzeko kartelak ezean, Gabonetako salneurri bereziak, Gabon salneurriak eta horrelakoak zioten kartelak eskegi dituzte dendetako atarrietan.

Egun berean guztiak
■ ■ ■ Duela bi urte hasi ziren Hegoaldeko denda eta saltoki handiak egun berean beherapenak egiten.



ANDER GILLENEA

Dena merke-merke saltzen duten abisua ipiniko dute saltzaileek erakuslehoetan.

Merkealdia, saldoa eta likidazioa

Nahastea erraza bada ere, garrantzitsua da merkealdia, saldoa eta likidazioak bereiztea. Merkealdian, denboraldi bukaeran beherapenak egiten dira produktu batzuetan.

Merkealdiko produktuak aurretik salgai egoten dira; hilabete lehena go salgai egon behar dutela dio legeak. Saldoetan, berriz, akatsen bat duten produktuak saltzen dira. Likidazioak denda itxi behar denean gelditzen diren produktuak saltzeko egiten dira.

Iruzur egiterik nahi ez badute, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek urtero sasoi honetan ematen dituzten aholkuak kontuan hartu behar dituzte herritarrek. Merkeago saltzeaz gain, beste baldintza batzuk bete behar dituzte dendariak. Halaber, «presa eta jende multzo handiak saihesteko,

puntuz puntu

Erosteko aholkuak

Gaur, dendak zabaldu bezain laster hasiko den merkealdirako ohiko gomendioak kaleratu dituzte kontsumitzaileen elkarteek.

■ **Epea:** Urtarrilaren 7an hasiko da merkealdia, eta martxoaren 31 bitartean iraungo du. Gutxienez astebete eta gehienez bi hilabete iraungo du.

■ **Akatsik ez:** Produktuak ez du akatsik izan behar. Bestela saldoetan salduko litzateke.

■ **Prezioa ikusi:** Saldu nahi den produktuaren prezioa argi erakutsi behar da. Erakuslehoetan dauden produktuen prezioek ere kanpoaldetik ikusteko moduan izan behar dute.

■ **Aurreko prezioa:** Merkealdiko prezioarekin batera, aurreko prezioa zein zen jarri behar da.

■ **Euroa:** Nahi duen dendariak pezeta edo liberatan eta eurotan jar dezake produktuaren prezioa. Horretarako, euroaren balio ofiziala erabili beharko dute beti.

■ **Faktura eskatu:** Erosketaren frogagiria, faktura edo txartela, eskatu eta aldi batean gorde egin behar da.

■ **Kreditu txartela:** Normalean erosketak egiteko kreditu txartela onartzen duten dendariak merkealdian ere onartu beharra daukate. Era berean, bezeroari ezin diote eskatu banketxearen komisioa ordaintzeko.

■ **Garantia:** Etxeko tresna elektrikoetan garrantia eskatu behar da, eta iraungitze egunari ondo erreparatu behar zaio, ez dadin iruzurrik gertatu.

■ **Kalitatea:** Prezioaren beherapenak ez du kalitatearen beherapena esan nahi. Erositen den produktua ohiko garaian erosten denaren kalitate berekoa dela egiaztatu behar da. Ezin da inoiz etiketarik gabeko arropa erosi, eta etiketak neurria, konposizioa eta garbitzeko erak zehaztu behar ditu.

■ **Zerrenda:** Benetan behar denaren edo erosi behar denaren zerrenda egin behar da, askotan zaila baita erasoko publizitateari muzin egitea.

ordutegi lasaienak aukeratzeko eta jendetza handia dagoen lekuak ez direla beti bertan gauza on eta merkeak dauden seinale» gogorarazten du, esaterako, Nafarroa-

ko Iratxe Kontsumitzaile Elkarteak.

Aholku horiek urteroko kontua izaten dira garaioetan; izan ere, era honetako elkarreetako arduradunek ondo

asko dakite zer nolako arazoak sor daitezkeen merkealdian erosketak egitean tentuz ez ibiltzeagatik.

Ainhoa Gerra
DONOSTIA